



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko urriaren 29a

104. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak moldatzen dituen 12/2010 Foru Legea aldatzekoa. Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Mendetasun-egoera aitortzeko prozedura ezartzen duena eta Nafarroan mendetasun egoera balioesteko ekipoak taxutzeko langileen antolamendua, eginkizunak eta araubidea ezartzen dituena. Aurkeztutako zuzenketak (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Jagoletza Partekatuari buruzkoa. Akats zuzenketa (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Baluarte Fundazioa premiatzen dira, euskararen presentziari eta garapenari dagokienez, aurrerapausoak eman ditzaten barneko errotulazioan, testu inprimatuetan eta webgunean. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Pirinioen Garapenerako II. Plana igor dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Goi Ikuskaritzarekin harremanetan jar dadin, Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Legearen aplikazioaren gaineko jarraipen bat egiteko. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da dietista-nutrizionistak 11/1992 Foru Legean eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sar ditzan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna helarazten baitio Osasun, Politika Sozial eta Berdintasuneko ministro Leire Pajin Iraola andreaki, Valladolideko alkate Javier León de la Riva jaunaren adierazpenak direla eta. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Hondakinen Plan Integralaren eztabaidari eta onespenerari buruzkoa, Txentxo Jiménez Hervás jaunak egin (10. or.).
- Galdera, Nafarroan arte garaikidea indartu eta garatzeko egitasmo orokorreko sorkuntza eta esperimentazio zentroaren eta plataformaren inguruan eginiko lanari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egin (10. or.).
- Galdera, Nafarroan arte garaikidea indartu eta garatzeko egitasmo orokorra garatzeko izendatu den kudeatzaileari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egin (11. or.).
- Galdera, Zangozako biribilguneko eta industrialde berriko desjabetzapenen egoerari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egin (12. or.).
- Galdera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak legegintzaldi honen amaierara arte abian jarriko dituen plan, proiektu eta ekimenei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egin (12. or.).
- Galdera, gazteak nekazaritzan hasteko laguntza-eskarien kopuruari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egin (13. or.).
- Galdera, Panpako luma-mottoak, zebra-muskuiluak eta sagar-barraskiloak Nafarroako Foru Komunitatean bizi duten egoerari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egin (13. or.).
- Galdera, “Kultura eskura” programari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egin (14. or.).
- Galdera, “Gazteentzako kultur bonoa” programari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egin (14. or.).
- Galdera, Leitzako Plazaola geltokirako proiektua abian jartzeari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egin (15. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak moldatzen dituen 12/2010 Foru Legea aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 25ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak defizit publikoa murrizteko neurri bereziak moldatzen dituen 12/2010 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak moldatzen dituen 12/2010 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2010eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak moldatzen dituen 12/2010 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legeak, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatean moldatzen dituenak, 8/2010 Errege Lege Dekretuaren bidez ezarritako neurri-

ak aplikatzea zuen helburu. Foru legeko hirugarren xedapen gehigarriaren bidez, Nafarroako ikastetxe itunduetako langileen ordainsariak murriztu ziren, nahiz eta errege lege dekretuak ez zuen halako murrizketarik ezarri. Horren froga da Espainiako Gobernuak ez diela murrizketarik aplikatu bere eskumeneko esparruko ikastetxe itunduetako langileei (Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren lurraldea).

Hilabeteotan egiaztatu da autonomia erkidegoek irakasleen ordainsariei buruzko neurriak hartu dituztela, beharrezkoa eta komenigarria den adostasunaren bidez, eta, kasuren batean, irakasle publikoekiko parekatzea lortu dela. Nafarroan, aldiz, atzerapauso nabarmena ezarri da, nahiz eta Foru Komunitatea, orain dela hamar urte, prozesu horretan aitzindari izan.

Halatan, gaur egun, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe itunduetako langileak dira Estatu osoan traturik okerrera pairatzen dutenak, hala forman nola edukian, defizit publikoa murrizteko neurrien aplikazioari dagokionez; eta, hartara, ez da betetzen Foru Hobetzearen araua, zeinaren arabera Nafarroan ez baita inor egonen Espainiako Estatuaren gainontzeko lurraldeetan baino egoera okerragoan.

Hortaz, 12/2010 Foru Legeak ezarritako egoera zuzentzea komeni da, indarrrik gabe utzita Nafarroako ikastetxe itunduetako langileei buruzko aipamenak.

Artikulu bakarra. Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatean moldatzen dituen ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legeko hirugarren xedapen gehigarria indargabetu da.

Azken xedapena. Foru lege honek 2010eko ekainaren 14tik aurrera izanen ditu ondorioak.

Foru Lege proposamena, Mendetasun-egoera aitortzeko prozedura ezartzen duena eta Nafarroan mendetasun egoera balioesteko ekipoak taxutzeko langileen antolamendua, eginkizunak eta araubidea ezartzen dituen.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Mendetasun-egoera aitortzeko prozedura ezartzen duen eta Nafarroan mendetasun egoera balioesteko ekipoak taxutzeko langileen antolamendua, eginkizunak eta araubidea ezartzen dituen Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak. Proposamen hori 2010eko ekainaren 4ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko urriaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Lege proposamenaren izenari beste testu hau gehitzeko zuzenketa: “ eta banakako laguntza planaren prestaketa ere ezartzen duena”

Zioak: Proposamen honetan, 16. eta 17. artikulua sartu dira, non plan horren prestaketaren aipamena egiten baita.

2. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Beste xedapen bat gehitzeko zuzenketa.

“XX. xedapen gehigarria. Plan Soziosanitarioak izan behar du mendetasunaren balioespen egokia

egina dutenei eta banakako laguntza plana aitortua duten pertsonen konponbidea eman behar diena”

Zioak: Osasuneko Departamentuak eta Gizarte Gaietako Departamentuak dute gaixotasun mentalak dituztenen beharrei konponbidea emateko ardura, bai eta haiek artatzeko beharrezkoak diren baliabideak jartzekoa ere.

3. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Beste xedapen bat gehitzeko zuzenketa.

“XX. xedapen gehigarria. Foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak, galdetuta alde aurretik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuei, Nafarroako Mendetasun Agentziari eta gaixotasun mentalak dituzten pertsonen elkarteei, eta haiekin guztiekin lankidetzan, Parlamentura proposamen bat igorriko du artatzeko gaixotasun mental larria diagnostikatuta bai baina aitortzen ez dutenak abenduaren 14ko 39/2006 Legean, ezta gizarte-zerbitzuen zorroan ere.”

Zioak: Gaixotasun mental larriak dituzten zenbait pertsonak zailtasunak dituzte mendetasun arrunta duten pertsona gisa onartuak izateko. Pertsona horiek gauza dira beste inoren laguntzarik gabe janzteko, jateko, ibiltzeko eta komunera joateko. Errealitateak erakusten duenez, hala ere, gaixo horiez arduratzen den familia gaixotasunak gaindituta egon ohi da .

Beraz, berraztertu egin behar da mendetasun egoeren aitortpena.

Foru Lege proposamena, Jagoletza Partekatuari buruzkoa.

AKATS ZUZENKETA

Akats bat aurkitu da Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2010eko irailaren 27an hartutako erabakiaren argitalpenean (2010eko urriaren 1eko 96. NPAO). Erabaki haren bidez xedatu zen Jagoletza Partekatuari buruzko Foru Lege proposamena izapidetzea. Ondoren dator zuzenketa:

Hirugarren lerrokadan, hau esan ordez: “Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, ...”; hauxe esan behar du: “Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147, 151.1 eta 152. artikuluetan ezarritakoarekin bat, ...”

1. idatz-zatian, honako hau esan ordez: “Jagoletza Partekatuari buruzko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.”; honako hau esan behar du: “Jagoletza Partekatuari buruzko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea, Erregelamenduko 151.1 eta 152. artikuluetan ezarritako berezitasunak kontuan hartuta.”

Iruñean, 2010eko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu eta Baluarte Fundazioa premiatzen dira, euskararen presentziari eta garapenari dagokienez, aurrerapausoak eman ditzaten barneko errotulazioan, testu inprimatuetan eta webgunean.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu eta Baluarte Fundazioa premiatzen baitira, euskararen presentziari eta garapenari dagokienez, aurrerapausoak eman ditzaten barneko errotulazioan, testu inprimatuetan eta webgunean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da elebitasunaren garapen progresiboa bultzatuz.

dezan Baluarte Fundazioak sustatutako jarduketetan.

Nafarroako Parlamentuak aldiro onesten ditu ekimenak, Administrazioak eta haren menpeko erakundeek sustatutako jarduketetan euskararen erabilera arrazoizkoa eta progresiboa bultzatzeko.

Esparru horietako bat Iruñeko Baluarte Jauregia da, duen kokalekuarengatik eta sinbolismoarengatik garrantzi berezia baitu. Zenbait parlamentu-ekimenen ondotik, Nafarroako Gobernuak eta fundazioak eraikinean errotulu elebidunak jartzea onartu dute, "Palacio Baluarte Jauregia" jarrita.

Hori aurrerapauso handia bada ere, ez du ematen ekimen hori aski denik Erkidegoko eremu mistoan Euskarari buruzko Legearen nahiz hura garatzeko erregelamenduen garapen zentzuduna irudikatzen, lege hori onetsi zenetik hogeita lau urte igaro ondoren.

Hartara, ondokoa proposatzen dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu eta Baluarte Fundazioa premiatzen ditu, euskararen presentziari eta garapenari dagokienez, aurrera egin dezaten barneko errotulazioan, testu inprimatuetan eta webgunean, era horretan euskarara eguneroko tresna izan dadin, eta ez salbuespena, bere ohiko jardunean.

Iruñean, 2010eko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Pirinioen Garapenerako II. Plana igor dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Pirinioen Garapenerako II. Plana igor dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, parlamentu-taldeko eledun diren aldetik, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195.

artikuluaren eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Parlamentuak ondoko erabaki proposamena onetsi zuen martxoaren 25eko Osoko Bilkuran (2010eko apirilaren 12ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen):

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean Nafarroako Piriniorako garapen plan berri bat taxu dezan 2010-2012 urteetarako.”

Sei hilabete igaro dira eta oraindik plan hori ez da Parlamentu honetara iritsi. Hori dela eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aurtengo abendua baino lehen igor dezan Parlamentura, eztabaidatu eta onets dadin, Pirinioen Garapenerako II. Plana.

Iruñean, 2010eko urriaren 20an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Goi Ikuskaritzarekin harremanetan jar dadin, Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Legearen aplikazioaren gaineko jarraipen bat egiteko.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Estatuko Goi Ikuskaritzarekin harremanetan jar dadin, Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Legearen aplikazioaren gaineko jarraipen bat egiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoko 4. artikulua ondokoa dio hitzez hitz: "Estatuak, Goi Ikuskaritzaren arloan dituen eskumenak baliatuta, lege honen aplikazio esparruko prestazioak eta zerbitzuak, Estatuko Osasun Sistemak ezarritakoak, berdintasunez eskuratzen direla ziurtatuko du."

Orain dela gutxi, berdintasun-politiken idazkari nagusiak adierazi du Berdintasun eta Osasun ministerioek Goi Ikuskaritzako baliabideak erabiliko dituztela martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoa behar bezala betetzen ez duten autonomia erkidegoen aurka.

Berdintasun-politiken idazkari nagusiak orobat

dio lege organiko horren aplikazioaren jarraipena egiten ari direla.

Bere lurraldean aborturik egiten ez duen autonomia erkidegoetako bat da Nafarroako Foru Komunitatea, eta beste erkidego batzuetara desbideratzen ditu haurdunaldia eteteko eskaria egiten duten emakumeak. Hori horrela, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Estatuko Goi Ikuskaritzari eska diezaion Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Legearen aplikazioaren gaineko jarraipen bat egin dezan Nafarroako Foru Komunitatean.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Estatuko Goi Ikuskaritzarekin harremanetan jar dadin mozio hau onesten denean, martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoa betetzen den ala ez aztertzeko egutegi bat ezartze aldera.

Iruñean, 2010eko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da dietista-nutrizionistak 11/1992 Foru Legean eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sar ditzan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita dietista-nutrizionistak 11/1992 Foru Legean eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sar ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Honen bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da dietista-nutrizionistak 11/1992 Foru Legean sar ditzan.

Dietista-nutrizionista bat osasun arloko profesionala da, pertsona baten edo pertsona-talde baten elikaduraren gainean jarduteko gai dena, kontuan hartuta beharrezko fisiologikoak edo patologikoak, lehentasun pertsonalak, sozioekonomikoak, kulturalak edo erlijiosoak.

Nutrizioa beharrezko osagai gisa hartu behar da gaixoak sendatu eta errehabilitatzeko orduan, baina baita, eta are garrantzi handiagoarekin, norbanakoaren nahiz taldearen osasuna sustatzeko orduan ere. Nutrizioaren zientziaren ikuspuntua

beharrezkoa da; izan ere, gaur egungo gizartearen egitura ahalbidetu duten aurrerabide zientifiko, teknologiko eta sozialen ondorioz, arreta handiagoa jarri behar da gizarte horien elikadura egokia zehazten duten faktore konplexuetan. Aurrerabide horiek, batez ere zientzia medikoetakoek, heriotza-tasak nabarmen jaitsarazi dituzte.

Gaur egun, nutrizioa garrantzi handiko zientzia bat da medikuntzaren barruan, eta horren garrantzia areagotu egiten da egunetik egunera, gaixotasun infekziosoak menderatzen diren neurrian, arlo horretan asko aurreratu baita.

Nutrizioak berebiziko garrantzia du egunotan. Heriotza asko eta asko minbiziak, bihotzeko arazoek eta diabetesak eragindakoak dira. Gaixotasun horiek guztiak elikadura-azkurekin lotuta daude. Osasun onaren oinarrietako bat da, beraz, elikadura ona.

Beste faktore batzuk dauden arren, elikadurak zenbait gaitz areagotu ditzake, eta, halaber, gaitz horien eragina desegin dezake. Nutrizioa deitzen dugun tresna hori nola erabiltzen dugun, halakoxeak izanen dira ondorioak. Nutrizioari jaramonik egiten ez badiogu, oinazea, gaixotasunak eta ezinegona pairatuko ditugu. Nutrizioa erabiltzen ikas-

ten badugu, berriz, balio handikoa izanen zaigu gaixotasunak prebenitzeko.

Izan ere, gaixotasun asko prebeni daitezke elikadura on baten bidez. Dieta orekatu batek orobat laguntzen du arazo eta gabezia genetikoei aurre egiten.

Nutrizioa, beraz, medikuntza modernoa bezala, gaixoari ez ezik, osasuntsu dagoenari eta populazio-talde handiei ere zuzendu behar zaie.

Dietista-nutrizionistak gure osasunari begira bete dezakeen eginkizunaren garrantzia ikusita, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du dietsita-nutrizionistak 11/1992 Foru Legean eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko diziplina anitzeko ekipoetan sar ditzan; izan ere, funtsezko eginkizuna dute gehien ematen diren gaixotasunen arloko sustapenari, prebentzioari, tratamenduari eta errehabilitazioari dagokienez, norbanakoen nahiz taldearen osasuna hobetuz eta kalitatezko zerbitzua nahiz egiazko berdintasuna eskaintzen lagunduz.

Iruñean, 2010eko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna helarazten baitio Osasun, Politika Sozial eta Berdintasuneko ministro Leire Pajín Iraola andreari, Valladolideko alkate Javier León de la Riva jaunaren adierazpenak direla eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2010eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna helarazten dio Osasun, Politika Sozial eta Berdintasuneko ministro Leire Pajín Iraola andreari, Valladolideko alkate Javier León de la Riva jaunak ministroari buruz egindako adierazpen zeharo desegokiak direla eta.

2. Nafarroako Parlamentuak erabat arbuiatzen ditu gisa horretako jokabideak, eta emakume ororen aurkako edozein adierazpide sexista, matxista edo laidogarriren aurrean “zero tolerantzia” izateko konpromisoa berresten du; izan ere, emakume

bati buruz emakume izate hutsagatik halako adierazpenak egiten direnean, emakume guztien aurkako erasoak egiten da.

3. Nafarroako Parlamentuak erabaki du Valladolideko alkateari ofizialki eskatzea Espainiako Gobernu ministroaren aurka esandakoa modu zintzo eta egokian zuzendu dezan.

4. Nafarroako Parlamentuak erabaki du alderdi politikotako arduradun nagusiei eskatzea berehala eta modu irmo batez esku har dezaten kasu honetan nahiz honen antzekoetan.”

Iruñean, 2010eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Hondakinen Plan Integralaren eztabaidari eta onespenerari buruzkoa.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkeztutako galdera, Hondakinen Plan Integralaren eztabaidari eta onespenerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Txentxo Jiménez Hervas jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein egunetan igorriko dio Nafarroako Gobernuak Parlamentuari, eztabaidatu eta onesteko, Nafarroako Hondakinei buruzko Plan Integrala?

Iruñean, 2010eko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

Galdera, Nafarroan arte garaikidea indartu eta garatzeko egitasmo orokorreko sorkuntza eta esperimentazio zentroaren eta plataformaren inguruan eginiko lanari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan arte garaikidea indartu eta garatzeko egitasmo orokorreko sorkuntza eta esperimentazio zentroaren eta plataformaren inguruan eginiko lanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurak, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Kontseilariak ahoz erantzun diezaion Legebiltzarreko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean.

Zein da Nafarroako Gobernuak egin duen lana Sorkuntza eta Esperimentazio Zentroa eta Plataforma Egitasmoaren inguruan?

Iruñean, 2010eko urriaren 21 ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Nafarroan arte garaikidea indartu eta garatzeko egitasmo orokorra garatzeko izendatu den kudeatzaileari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan arte garaikidea indartu eta garatzeko egitasmo orokorra garatzeko izendatu den kudeatzaileari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurak, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Kontseilariak ahoz erantzun diezaion Legebiltzarreko Osoko Bilkuran.

Zein da Nafarroako Gobernuak izendatu duen kudeatzailea Nafarroan arte garaikidea indartu eta garatzeko egitasmo orokorra aitzinera ateratzeko?

Iruñean, 2010eko urriaren 21 ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Zangozako biribilguneko eta industrialde berriko desjabetzapenen egoerari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Zangozako biribilguneko eta industrialde berriko desjabetzapenen egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Zein egoeratan daude desjabetzeak Zangozako industrialde berrian eta biribilgunean?

- Nafarroako Gobernuak ba al du informaziorik industrialdeko biribilgune berria egin dezan Zangozako Udalarari emandako 500.000 euroko dirulaguntzari buruz?

Iruñean, 2010eko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak legegintzaldi honen amaierara arte abian jarriko dituen plan, proiektu eta ekimenei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak legegintzaldi honen amaierara arte abian jarriko dituen plan, proiektu eta ekimenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak politika orokorreko zer ekimen, proiektu eta plan jarriko ditu abian legegintzaldi hau bukatu bitartean? Zer balorazio egiten du orain arte egindakoei buruz?

Iruñean, 2010eko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, gazteak nekazaritzan hasteko laguntza-eskarien kopuruari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, gazteak nekazaritzan hasteko laguntza-eskarien kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatziko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Zenbat eskari aurkeztu dira 2007an, 2008an, 2009an eta 2010ean, gazteak nekazaritzan hasteko laguntzetarako?

2. Aurrekontuan zenbat diru jarri da 2007an, 2008an, 2009an eta 2010ean gazteak nekazaritzan hasteko laguntzen lerro horretarako?

Iruñean, 2010eko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Panpako luma-mottoak, zebra-muskuiluak eta sagar-barraskiloak Nafarroako Foru Komunitatean bizi duten egoerari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Panpako luma-mottoak, zebra-muskuiluak eta sagar-barraskiloak Nafarroako Foru Komunitatean bizi duten egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatziko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

• Zer egoeratan daude Panpako luma-mottoa, zebra-muskuilua eta sagar-barraskiloa Nafarroako Foru Komunitatean?

• Zer neurri hartu dira horiek desagerrarazteko?

Iruñean, 2010eko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, “Kultura eskura” programari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, “Kultura eskura” programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Kultura, eskura

Zer balorazio egiten du Gobernuak programa hori dela eta? Zer elkartek egin dituzte eskariak?

Zein da horretarako eratu den kontusailaren betetze maila?

Iruñean, 2010eko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, “Gazteentzako kultur bonoa” programari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, “Gazteentzako kultur bonoa” programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Gazteentzako kultur bonoa

Zer balorazio egiten du Gobernuak programa hori dela eta? Zenbat bono eman dira guztira? Zein herritan bizi dira bonoa jaso dutenak? Zein da horretarako eratu den kontusailaren betetze maila?

Iruñean, 2010eko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Leitzako Plazaola geltokirako proiektua abian jartzeari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Leitzako Plazaola geltokirako proiektua abian jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Aitor Etxarri Pellejero, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

1. Nafarroako Gobernuak noiz jarri behar du martxan Leitzako Plazaola geltokirako aurreikusita zegoen proiektua?

2. Zein da horretarako erabiliko den aurrekontuen partida?

3. Zenbat diru jarriko du Nafarroako Gobernuak proiektua aurrera eramateko?

Iruñean, 2010eko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

